

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, Donostian ez daudenez diskoteka nahikorik berri bat sortzeko ideia eduki genuen eta Startinnova plataformaren bitartez garatu genuen. Gure proiektua ez da diskoteka berri bat soilik, baizik eta euskararen egoera kaskarra ikusita, hizkuntza modu gaurkotuenean eta ederrenean zabaltzeko modu polita da, euskarazko musika bezala.

Bada jendea oraindik ez dena behar bezain kontziente euskara galtzeko zorian dagoela; horregatik, gazte gehienak diskotekaren batera joaten direnez festaren bat ospatzeko, pentsatu genuen euskal komunikazioa pixka bat berreskuratzeko eta horrela arriskuak gutxitzeko modu ezin hobea zela.

Oro har, gure bezero perfektuak nerabeak izango lirateke, musika-aukeraketak errazteko, baina mundu guztiak du gure diskotekan egoteko eskubidea, ondo pasatzeko helburua badu. Baina kontuan hartu behar da gure diskotekara joaten bazara hasieran jarrera ona izan beharko duzula langileekin.

Hau guztia kontuan izanda, animatzen zaitugu gure diskotekara joatea! Gainera, gure lehenengo 100 bezeroetako bat bazara, eskaintza bat izango duzu zure sarreran!